

2/2026 EBAZPENA

RESOLUCIÓN 2/2026

Espedientea: RMT 10/2025

Expediente: RMT 10/2025

BATZORDEBURUA: María Eugenia Maté Mendieta

PRESIDENTA: María Eugenia Maté Mendieta

KIDEA: Nerea García Rodríguez

VOCAL: Nerea García Rodríguez

IDAZKARIA: Unai Aberasturi Cantera

SECRETARIO: Unai Aberasturi Cantera

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak, arestian adierazitako kideek osatuta, EBAZPEN hau eman du [REDACTED] [REDACTED] [REDACTED] [REDACTED] Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 986/2025 Ebazpenean informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaerari emandako erantzunaren aurka aurkeztutako erreklamazioaren aurrean, osatugabetzat jotzen baitu. Nerea García Rodríguez andreak jardun du txostengile, eta Batzordearen iritzia adierazi du.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por [REDACTED] [REDACTED], contra la respuesta dada a su solicitud de acceso a información pública en la Resolución 986/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Desarrollo Territorial, que considera incompleta. Actúa como ponente Nerea García Rodríguez, quien expresa el parecer de la comisión.

### AURREKARIAK

### ANTECEDENTES DE HECHO

1.- 2025eko urriaren 14ean [REDACTED] [REDACTED] informazio publikoa eskuratzeko eskaera hau aurkeztu zion Bizkaiko Foru Aldundiari:

1.- El 14 de octubre de 2025 [REDACTED] [REDACTED] presentó la siguiente solicitud de acceso a información pública, dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia:

*“En nombre de la plataforma vecinal Stop Variante Las Karreras, solicito que se haga llegar a los departamentos pertinentes, la solicitud de copia de los informes realizados por la Sección de Planeamiento Municipal de la Diputación Foral de Bizkaia, la Sección de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Bizkaia y la Subdirección General Gestión Espacios Naturales y Servicios Generales de la Diputación Foral de Bizkaia, en relación a la consulta sectorial y de organismos afectados que se hayan realizado dentro la continuación de la tramitación del proyecto Variante de la carretera BI-734 entre el P.K. 128+400 y el P.K 130+500, en Abanto-Zierbena (Acuerdo de 06/03/2'25) en aras del principio de transparencia e información pública que debe regir la actuación de las Administraciones Públicas”.*

Eduki berarekin, eta data berean, erreklamatzailleak informazio publikoa eskuratzeko beste eskaera bat aurkeztu zuen, eta, zehazki, proiektu hori izapidetzeko prozesuan, Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak egindako txostenak aipatu zituen.

Con el mismo tenor literal, y en misma fecha, la reclamante presenta otra solicitud de información pública, refiriéndose en concreto a los informes realizados por el Servicio de Patrimonio Natural en la tramitación del proyecto citado.



2.- Eskaera hori dela eta, Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiak erantzuna eman zion eskatutako informazioa eskuratzeko eskabideari, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta. Hau zioen erantzunak, hitzez hitz:

"G88202502320817E eta G88202502320817E zenbakiekin erregistratutako informazio publikoa eskuratzeko zure eskabideei dagokionez, Abanto-Zierbenan (V2) 128+400 KPtik 130+500 KPra bitartean BI-734 errepidearen saihebidetaren proiektuaren inguruko dokumentazio jakin bati dagokionez, jakinarazten dizugu Bizkaiko errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera izapidetzen ari den espedientea dela. Araudi horren arabera, dagokion eskaera helarazten zaie ukituak izan daitezkeen administrazio eta organismo publiko interesdunei".

3.- Aurreko ebazpenaren aurka, [REDACTED] gardentasunaren inguruko erreklamazioa aurkeztu zuen Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, 2025eko azaroaren 24ean. Ondoren, idazkia Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordean jaso zen eta 10/25 zenbakia esleitu zitzaion

4.- Erreklamatzailerak dioenez, eskaera egin du uste duelako informazio publikoa eskuratzeko egin zuen eskaera ez zela bere osotasunean hartu. Hala, azaltzen du, lehenik eta behin, 2025eko irailaren 19an, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari zuzendutako eskabide bat aurkeztu zuela, Abanto-Zierbenako udal-mugaratean, BI-734 errepidearen 128+400 eta 130+500 KPen arteko saihebidetaren egiteko proiektua dela eta jada emandako nahitaezko txosten sektorialen kopia eskatzeko.

Erreklamazioan adierazten duenez, 2025eko

2.- En respuesta a su escrito, el Director General de Desarrollo Territorial, basándose en el artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, da respuesta a la solicitud de la diversa información requerida, con el siguiente tenor literal:

*"En relación con sus solicitudes de acceso a información pública registradas con número G88202502320817E y G88202502320817E, respectivamente, relativas a determinada documentación con relación al "Proyecto Variante de la carretera BI-734 entre el P.K. 128+400 y el P.K. 130+500, en Abanto-Zierbena (V2)", le informamos que se trata de un expediente en curso tramitado conforme a la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de carreteras de Bizkaia y demás normativa aplicable. Conforme a esta normativa, se traslada la oportuna solicitud a las administraciones y organismos públicos interesados que pudieran resultar afectados."*

3.- Contra dicha Resolución, [REDACTED] presentó el día 24 de noviembre de 2025, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, reclamación en materia de transparencia. Posteriormente, dicha reclamación se recibió en esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, asignándole el número 10/25.

4.- Según expone la reclamante, su petición se fundamenta en que, en su opinión, su solicitud de información pública no ha sido atendida en su integridad. Así, explica que, en primer lugar, con fecha 19 de septiembre de 2025, presentó una instancia dirigida al Departamento de Medio Natural y Agricultura solicitando copia de diversos informes sectoriales preceptivos ya emitidos en relación con el proyecto de la variante de la carretera BI-734 entre los puntos kilométricos 128+400 y 130+500, en el término municipal de Abanto-Zierbena.

Según advierte en su reclamación, el 24 de



irailaren 24an, sail horretatik telefonoz jakinarazi zitzaion eskabidean aipatzen ziren atal, zerbitzu eta organismoak ez zeudela sail beraren mende, eta adierazi zitzaion komeni zela eskabide berriak aurkeztea, berezita. Erreklamatazaileak egun horretan bertan aurkeztu zituen eskabide horiek.

Geroago, 2025eko urriaren hasieran, eskatutako txostenetako bi jaso zituen, baina ez zitzaizkion gainerako txostenak eman, bereziki Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren txostena, zeina interes handienekoa baitzen berarentzat.

Egoera horren aurrean, 2025eko urriaren 14an, informazio publikoa eskuratzeko zenbait eskaera egin zituen, jaso gabeko txostenak lortzeko. Hala ere, erreklamazioa aurkeztu zen egunera arte, interesdunak ez zituen gainerako txostenak jaso, eta Azpiegiturak eta Lurralde Garapenerako Sailak irailaren 19ko eskaera orokorrari emandako erantzuna baino ez zitzaion bidali. Erantzun horretan, Bizkaiko errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiarekin bat etorrita, proiektu hori izapidetze-fasean zegoela baino ez zitzaion jakinarazi, eta ez zen informazio osagarririk eman, ezta eskatuko txostenak eman ere.

5.- Batzorde honek erreklamazio horren edukari buruzko txostena eskatu zion Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailari, eta Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordetzak txosten hau egin zuen:

*“Natura Ondarearen Zerbitzuari eskatutako txostena ingurumen-ebaluazioaren espedientearen parte da, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua eta hurrengoan arabera eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin bat datozenen arabera izapidetu behar da. Artikulu horietan proiektuaren eta ingurumen-inpaktuaren*

septiembre de 2025, desde el citado departamento se le comunicó telefónicamente que la solicitud mencionaba secciones, servicios y organismos que no dependían del mismo departamento, indicándosele la conveniencia de presentar nuevas solicitudes separadas. La reclamante presentó dichas solicitudes ese mismo día.

Posteriormente, a comienzos de octubre de 2025 recibió dos de los informes solicitados, sin que se le facilitara el resto, especialmente el informe del Servicio de Patrimonio Natural, que señalaba como de mayor interés.

Ante esta situación, el 14 de octubre de 2025 formuló varias solicitudes de acceso a la información pública dirigida a obtener los informes pendientes. No obstante, hasta la fecha de presentación de la reclamación, la interesada no había recibido los informes restantes, habiéndosele remitido únicamente una respuesta a la solicitud genérica de 19 de septiembre por parte del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, limitándose a informar de que el proyecto se encontraba en tramitación conforme a la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de Carreteras de Bizkaia y demás normativa aplicable, sin aportar información adicional ni facilitar los informes requeridos.

5.- Esta comisión solicitó al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, informe en relación con el contenido de la reclamación formulada y la subdirección de Desarrollo de Infraestructuras ha informado lo siguiente:

*“El Informe solicitado al Servicio de Patrimonio Natural forma parte del expediente de evaluación ambiental que debe tramitarse conforme a los artículos 36 y siguientes de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y a los concordantes de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi. En estos artículos se regula la información pública del proyecto y del estudio de impacto ambiental, así como el trámite de*



azterketaren jendaurreko informazioa arautzen da, baita kontsulten izapidea ere. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren (Ingurumen Zuzendaritza Nagusia) eginkizunetako bat da proiektuen ingurumen-ebaluazioa egitea, sail horren egitura organikoa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 31ko 79/2022 FORU DEKRETUAREKIN bat etorriz. Beraz, ingurumen-ebaluazioko espedienteak ebaztea ez dago sail honen eginkizunen artean.

Gainera, interesdunak berak aipatutako txostena sail horri zuzenean eskatu ahal izatea alde batera utzi gabe, aitortzen duenez, sail honen eskumena ez den heinean, ez legoke eragozpenik eskaera hori dagokion zuzendaritzari helarazteko”.

consultas. Está entre las funciones del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural (Dirección General de Medio Ambiente) las relativas a la evaluación ambiental de los proyectos, de conformidad con el DECRETO FORAL 79/2022, de 31 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la estructura orgánica del citado departamento. Por lo que, la resolución de los expedientes de evaluación ambiental no está entre las funciones de este departamento.

Además, sin perjuicio, de que la propia interesada haya podido requerir directamente el informe mencionado al citado departamento, según reconoce, en la medida en que no es competencia de este departamento, no habría inconveniente en dar traslado de esta petición a la dirección correspondiente”.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehena.** Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu zen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea.

Foru-arau horren 29.1.1. artikulua arabera, 2. artikuluaekin lotuta, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-erakunde autonomoetako, foru-erakunde publiko enpresarialetako, merkataritzako foru-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Primero.** La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio,



ezartzen du batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: “a) *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*”

**Bigarrena.** Erreklamazio honetan, laburbilduz, erreklamatzailleak bere kexa adierazten du helarazi zaion dokumentazioa osatu gabe dagoelako, eta eskatzen du osorik betetzeko, eta bereziki aipatzen ditu bere idazkietan aipatutako prozesuaren izapideen barruan Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak emandako txostenak.

**Hirugarrena.** Lehen aipatutako Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak 18.1. artikuluan aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, foru-arau beraren 17.2 artikuluaaren arabera, honako hau da: (...) *foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...)*”.

Beraz, arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera publikoarekin lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) foru-arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

**Laugarrena.** Kasu honetan, ordea, ez da berariaz ukatu informazio publikoa eskuratzeko eskubidea; izan ere, interpelatutako sailak egokitzat jo duen moduan eman du erantzuna.

establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: “a) *Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*”

**Segundo.** En la presente reclamación, en síntesis, la reclamante manifiesta su queja con relación a la falta de completitud de la documentación que se la ha hecho llegar, instando a que se le dé cumplimiento de manera íntegra, y en particular, se refiere a los informes dictados desde el Servicio de Patrimonio Natural en la tramitación del proceso al que alude en sus escritos.

**Tercero.** La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia precitada reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: “(...) *cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones.*”

Por tanto, la norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de ésta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza “*pública*”: (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

**Cuarto.** En el presente caso, no nos encontramos, sin embargo, con una denegación expresa de la solicitud de acceso a información pública; dado que el departamento interpelado ha dado respuesta a la misma en los términos que ha considerado adecuados.



1/2016 Foru Arauaren 18. artikulua araberako informazio publikoaren ukatu gabe, Azpiegiturarako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenean argudiatzen da, labur, prestatze-fasean dagoen espedientearen dela.

Sin negar su carácter de información pública en los términos del artículo 18 de la Norma Foral 1/2016, en la resolución de la Dirección General de Infraestructuras se arguye, escuetamente, que se trata de un expediente en curso de elaboración.

Baina lehen transkribatu den Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordearen txostena eskumen-gai bati buruzkoa da, ulertzen baita eskatutako informazioa proiektuaren ingurumen-ebaluazioan sartzen dela, eta, azaldu duenez, ebaluazio hori ez dago sail horren funtzioen barruan.

Sin embargo, el informe de la subdirección de Desarrollo de Infraestructuras que se ha transcrito anteriormente se refiere a una cuestión competencial, entendiendo que la información solicitada se encuadra en la evaluación ambiental del proyecto, que, según explica, no está entre las funciones de dicho departamento.

Horri dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea erreklamantzailearen idazkian bertan aipatzen dela Gobernu Kontseiluaren 2025eko martxoaren 6ko Erabakia, zeinaren bidez xedatzen baita jendaurreko informazioaren, entzunaldiaren eta kontsulten izapide berriak irekitzea BI-734 errepidearen saihebidetza egiteko proiektua dela eta. Erabaki horretan berariaz ezartzen da jendaurreko informazioaren izapideak egitea, bai Bizkaiko Errepideei buruzko 5/2021 Foru Arauaren xedatutakoaren ondorioetarako (bigarren puntua), bai ingurumen-impactuaren azterketaren ondorioetarako (laugarren eta bosgarren puntuak).

A este respecto, es importante destacar que, en el propio escrito de la reclamante, se alude a un Acuerdo de Consejo de Gobierno de fecha 6 de marzo de 2025, por el que se dispone la apertura de nuevos trámites de información pública, audiencia y consultas en relación con el proyecto de la variante de la carretera BI-734. Dicho Acuerdo Foral prevé expresamente la realización de trámites de información pública tanto a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral 5/2021, de Carreteras de Bizkaia (punto segundo) como a efectos del estudio de impacto ambiental (puntos cuarto y quinto).

Zehazki, aipatutako foru-erabakiaren zortzigarren puntuak zehatz-mehatz identifikatzen ditu ingurumen-kontsulten esparruan txostenak eskatu behar zaizkien organismo eta administrazio-unitateak, eta haien artean daude, hain zuzen ere, erreklamantzaileak eskatutako dokumentazioaren egileak:

En particular, el punto octavo del citado Acuerdo Foral identifica de manera concreta los organismos y unidades administrativas de los que deben recabarse informes en el marco de las consultas ambientales, entre los que se encuentran exactamente aquellos cuya documentación ha sido solicitada por la persona reclamante:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Plangintzarako Atala.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Atala.

- Servicio de Patrimonio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Sección de Planeamiento Municipal de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Sección de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Bizkaia.

Era berean, bederatzigarren puntuak ezartzen

Del mismo modo, el punto noveno establece



du, ingurumen-ebaluazioaren prozeduran egindako alegazioak eta txostenak jaso ondoren, ingurumen-organoari bidali beharko zaizkiola, ebaluazioa egiteko eskaerarekin batera, ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin dezan.

Aurrekotik ondorioztatzen da, berriz hasitako jendaurreko informazioaren eta kontsulten prozeduraren barruan, eskatutako txosten sektorialak edo kontsultatutako organoek benetan egin dituztenak eskatu behar izan dituela –edo, hala badagokio, jaso-Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak. Txosten horiek aipatutako sailak dituen neurrian edo izan behar dituen neurrian, informazio publikotzat hartzen dira, Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren arabera.

Araudi horretan ezarritakoarekin bat etorrita, foru-administrazioa behartuta dago bere esku dagoen informazioa eskuratzeko aukera ematera, salbu eta legez ezarritako mugaren bat gertatzen bada. Kasu honetan ez da halakorik alegatu edo egiaztatu. Ezin da zuzenbidearen araberkotzat jo, txosten horiek kontsulta-prozeduran jaso zirela erakusten duten zantzu nahikoak egonik, informazio publikoa eskuratzeko eskaerari emandako erantzuna proiektuaren izapidetze-egoerari buruzko informazio orokorra ematera mugatzea eta ez ematea ebazpen espresurik eta oinarriturik eskatutako txostenen eskuragarritasunari buruz.

Hori dela eta, 2025eko martxoaren 6ko erabakiaren ondoriozko dokumentuen trazabilitatea kontuan hartuta, bai eta administrazioek elkarren artean lankidetzan aritzeko duten betebeharra eta administrazioak duen informazio publikoa eskuratzeko aukera bermatzeko betebeharra ere, baietsi egin behar da erreklamazioa, eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari eskatu behar zaio erreklamatzaileari eman diezazkiola eskatutako txosten

que, una vez recibidas las alegaciones e informes emitidos en el procedimiento de evaluación ambiental, estos deberán ser remitidos al órgano ambiental, junto con la solicitud de evaluación, a los efectos de la emisión de la correspondiente Declaración de Impacto Ambiental.

De lo anterior se deduce que, en el marco del procedimiento de información pública y consultas nuevamente incoado, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial ha debido recabar –o, en su caso, recibir– los informes sectoriales solicitados o aquellos que hayan sido efectivamente emitidos por los órganos consultados. En la medida en que tales informes obran o deban obrar en poder del citado departamento, tienen la consideración de información pública en los términos de la Norma foral 1/2016, de Transparencia.

Conforme a dicha normativa, la Administración foral está obligada a facilitar el acceso a la información que obre en su poder, salvo que concurra alguno de los límites legalmente previstos, lo que no ha sido alegado ni acreditado en el presente caso. No puede considerarse ajustado a derecho que, existiendo indicios suficientes de que dichos informes fueron recabados en el procedimiento de consultas, la respuesta dada a la solicitud de acceso a información pública se limite a informar genéricamente sobre la situación de tramitación del proyecto sin resolver de manera expresa y fundamentada sobre la disponibilidad de los informes solicitados.

En consecuencia, y atendiendo a la trazabilidad documental derivada del acuerdo de 6 de marzo de 2025, así como al deber de colaboración interadministrativa y a la obligación de facilitar el acceso a la información pública que obre en poder de la Administración, procede estimar la reclamación y requerir al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para que facilite a la reclamante los informes sectoriales solicitados que obren en su poder,



sektorialetatik sailak dituenak, eta, ez baditu, ebazpen arrazoitu bat eman dezala azaltzen zergatik ez dituen edo zergatik ez dauden eskuragarri.

**Bosgarrena.** Azken batean, ezin da baliozkotzat jo [REDACTED] [REDACTED] eskatutakoari emandako erantzun bien oinarri den argudioa, eta, beraz, baietsi egin behar da erreklamazioa.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak honako hau erabaki du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** [REDACTED] Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 986/2025 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa baiestea, laugarren eta bosgarren oinarri juridikoetan adierazitakoa dela eta.

**BIGARRENA.** Ebazpen hau errekurtsogileari jakinaraztea eta haren berri ematea Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiari eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari.

**HIRUGARRENA.** Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi (2) hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren

o, en su defecto, emita una resolución motivada sobre su inexistencia o no disponibilidad actual.

**Quinto.** En definitiva, no puede darse por válida la argumentación en la que se basan una y otra de las respuestas dadas a lo solicitado por [REDACTED], procediendo en consecuencia la estimación de su reclamación.

Por todo lo cual, esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda:

### RESOLUCIÓN

**PRIMERO.** Estimar la reclamación promovida por [REDACTED], contra la Resolución 986/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Desarrollo Territorial del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, en los términos señalados en los fundamentos jurídicos cuarto y quinto.

**SEGUNDO.** Notificar esta resolución a la persona recurrente y comunicarla a la Dirección General de Desarrollo Territorial del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

**TERCERO.** La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos (2) meses a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en



uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

el artículo 27 del Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, aprobado mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Sin./Fdo.: NEREA GARCIA RODRIGUEZ - 2026-02-13  
BATZORDEKIDE TITULARRA  
VOCAL TITULAR

Sin./Fdo.: MARIA EUGENIA MATE MENDIETA - 2026-02-13  
PRESIDENTEA  
LA PRESIDENTA

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2026-02-13  
IDAZKARIA  
EL SECRETARIO